Erref. kodea: LAF-209-084

Izenburua: Louis Dassance-ri buruzko lana

# Louis Dassance



Euskal-herriak pena handirekin jakin du Louis Dassance apirilaren 14-ean goizeko oren batean itzali dela, bere etxeko guziez inguratuurik, ezti-eztia, elizakoak bezperan harturik ezagutza osoan.

Ortziralé saindu arratsaldean eremán dute haren gorputza Irigoinenekoen hil-hobirat, elizan otoitz zenbait egin ondoan. Bazko-biharamunean 11 orenetan emana izan da hil-meza.

Nor zen L. Dassance? Euskaldun bat dohainez betea, ez baita aise hetaz mintzatzea, bat edo bertze ahantzi gabe.

Hasteko Uztaritztarra zen, herriko familia ~~zaharrenetarik~~ zaharrenetarik batekoa : familia hortarik kargudun asko atera dira eta Pierre-Nicolas Dassance deitu kalonje famatu bat ere, euskaltza handi izan zena.

Louis Dassance sortu zen 1888-ko abenduaren 20-ean, San Luis egunean eta saindu horren izena eman zioten.

Lehen eskolak Uztaritzeko freretan egin zituen, bigarren mailekoak Larresoroko Semenario Handian eta laborantzakoak Parisen .... ⇒ handik "injenieur agronome"

Bere mende guzia laborantzaren eta hazkuntzaren zerbitzuko iragan du. Eskualdeko laborari batasun gehienetan ukan du zer egin: la Caisse régionale de Crédit agricole des Pées Atlantiques, Mutualité agricole, Fédération départementale des exploitants agricoles, eta bertze. «Comices agricoles» direlakoez ere arta hartu zuen, Armenthi. Kazetetan agerrarazi zituen bai erdaraz, bai euskaraz bere-lanari edo hazkuntzari buruzko hainitz argitasun, gehienetan batasun izenean, berak bere burua erakutsi gabe.

Uztaritzen ere, herriaren aldeko lan hainitz egin du, 20 urtez axuant eta bertze 20-ez auzapez egonik, 1959 arte, nahiz geroztik ere bere sort-herriaz beti arduratua egon den, bere ondokoeri laguntza ekartzeko beti prest.

1914-eko gerla hastean 18 urte zituen eta bere adinekoekin ibili zen gudu borthitzenetan: gerlako ~~gerlari~~ kurutzea eta gudarien kurutzea ukan zituen.

Geroztikako bere merezimenduen lekuko dira: Légion d'honneur, Mérite agricole, Médaille de la coopération agricole, Palmes académiques, Médaille d'honneur départementale et communale, eta holako ohoreak.

Bainan ez zen ~~A~~ sail horietan gelditzen L. Dassance jaunaren lana.

Euskaldungoaz griña handia zuen.

Harentzat pilota zen Euskaldunen kirol bereziena. Pilotaren ixtorioaz ikertze asko egin zituen, Elizasalde apezarekin batean ezarri zituen errebotako legeak, Pilotako federazioneko lehen lagunetarik izan zen, bera ere pilotaria izana joko gartsuan. Uztaritzen "Kapito-harri" batasuna eraiki zuen eta atseginekin bere seme Beñat ikusi zuen lagun-arte hortan buru bere ondoko jartzen.

Bertze euskal sailak ere gogoan zituen, eta 1921-ean zenbait adixkidekin "Gure herria" agerkaria sortu zuen eta geroztik orai arte beti jarraikiki lagundu, arta berezi batekin. Bertzeen iker-lanen suskatzea ez aski, bera ere ari zen miaka.

Ixtorioari buruz, Lapurdiko Biltzarrez ekarri dauku argi, Uztaritzeko herri xaharrez berdin, Lapurdiko herri eta hartzieren dretxoak ahantzi gabe, eta lehenagoko ~~eta~~ hatu moldeak argituz. Oroit gira ~~[illegible]~~ lehenago Orixe-ren euskal eliza

Mintzairaz den bezanbatean : euskal toki, ~~etxe~~ eta jende izenez bezala bildu zituen ~~et~~ xehetasun andana bat zahar, zaldi eta bertze etxeko abere zenbaiten ~~eta~~ euskal izenez.

Gisa berean, bera ihiztari ona izan baitzen, hemen gaindiko xorien euskal-izenak agerarazi zituen, Elissalde apeza lagun; eta ~~euskal~~ landareen euskal-izenak ere bai.

Bainan aitor zuen euskararen amodioa kantu zaharrek piztu ziotela. Larresoron hasi zen kantu biltzen eta kopiatzen, hirugarren-ean ikasle zenean, beraz frango gazterik.

Ez da harritzeko gostu ~~handia~~ handia baitzuen bertsularientzat eta kantari zoin gehiagoentzat.

Euskalzaleen Biltzarrean 1922-an sartu zen, sartu, laster ezagutu zuten haren balioa, eta Etchepare jaun mediku zenaren ondoko ezarri baitzuten batasun horren buru, 32 urtez atxiki zuten, haren mendean

izan baitira elgartasunaren biltzar egunik ederrenak

L. Dassance-k sustatu zuen Ikas batasuna eta haren President ere izan. Berdin Baionako « Musée Basque » delakoaren adiskide izan da haste-hastetik. Musée horren « bulletin »ean publikatu zuen lan bat aberatsa Lapurdiko dantza eta chauteriez. Batasun bat baita Musée horren adiskideena, hortan ere President izana da.

« Herria » kazetako buruzagietan ere haste-hastetik izana, oraino arras berriki arte berriak igortzen zituen hein bat ederki itzulikaturik.

Horiek hola zuzen eta egoki zen Euskaltzaindiko izan zadin eta osagarriz on zeno arras jarraikia zitzaien ~~a~~ plazer handienarekin ilabete guziz egiten diren biltzarreri.

Hasik ez dugu aipatu kargaduna baizik.

Gizonaz zer erran ? Gizona zela erraitea uste dut aski dela. Gizonki eraman baitu bere bizia. Gizon argi eta argitua zen, bihozduna eta borondatetsua. Ez zen bet-betan nehorat deliberatzen. Egitate bati

lotzerakoan, izartzen zituen ondorioak. Hortako jende asko heldu zitzaion kontseilu galdez. Ixil-ixila, fujetarik iragan gabe, zenbat makur-bide ez ditu xutendu, bai etxe batzuetako haurrideen artean, auzo batzuen artean? Arras jendekina baitzen eta ororekin minitza-erreta, ba eta bertzeen egitekoez beti mutu, konfesor bati bezala denak aitortzen zizkaten kontseilu-galdatzaileak.

Aita familiako errespetatua zen: oihurik gabe bazakien nola gida bere haurrak, maiteki bezain zuzenki, pazientzia legetzat harturik, bere andrearekin akort, eta Jainkoa lagun.

Ezen Lui Dassance jauna fededuna zen. Bere fedea ez zuen oihukatzen, ez eta gordetzen ere. Hortan ere arrabotsik gabe bizi zen. Suertez ikusi izan dugu bere etxe gibeleko xendra batetik elizalat pasatzen Sakramendu Sainduari bisita egiteko ba eta arrosarioa bakarrik inguratzen. × Orixe –, Euskarazko liturgia biziki gostukoa zuen eta "Herria" kasetako « Eliza berri » saila gain-gainekoa zitzaion argiz eta zuhurtziaz.